EKONOMIA

# Aurtengo sagar uzta 2023koaren erdia izango dela iragarri du Euskal Sagardoak

Bi eta hiru milioi kilo artean biltzea espero dute, eta bi milioi litro sagardo baino gutxiago ekoiztea. Hala ere, 2022ko sagardoa baino hobea izango da, kalitate «oso onekoa».



Imanol Magro Eizmendi

2024KO IRAILAREN 7A - 16:10

Entzun 00:02:26

Euskal Sagardoa sor-markaren barneko sagardogileek iaz baino uzta kaskarragoa espero dute aurtengo. Aurki dira sagar bilketari ekin eta sagardoa egiten hastekoak, eta, haien iragarpenen arabera, bi eta hiru milioi kilo artean bilduko

Eta zenbat sagardo da hori? Ekoizleen kalkuluen arabera, 1,5 eta bi milioi litro artean ekoitziko dituzte, iazkoaren erdia. Jaitsiera handia da, baina, aurreko datuei erreparatuta, 2022ko uzta baino hobea izango da. Orduan, 1,2 milioi litro ekoitzi ziren, eta bi milioi kilo sagar bildu. Urte hartan ekoizleek nabarmendu zuten uzta urria izan zela. 2021ekoa, berriz, iazkoaren oso antzekoa izan zen: sei milioi kilo eta 3,5 milioi litro.

Uzta iazkoa baino urriagoa izan arren, Amaia Barredo Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak aurreratu du sagardoa kalitate «oso onekoa» izango dela, besteak beste, euria eta beroa izan direlako. 50 sagardotegik egiten dute Euskal Sagardoa jatorri izena duen sagardoa: bik Araban, hiruk Bizkaian eta 45ek Gipuzkoan. Guztira, 250 ekoizpen gune dituzte, 500 hektarea.




Tolare bat, gaur, Donostiako Konstituzio plazan. IREKIA

Anjel Goñi, Gurutzeta sagardotegikoa (Astigarraga), eta Maria Jose Arregi, Olagi sagardotegikoa (Altzaga).

500

**Hektarea** Euskal Sagardoa sor-markarekin lan egiten duten 250 sagar ekoizle daude Euskal Herrian, eta guztien artean 500 hektarea sagasti dituzte.

GAIAK

Ekonomia eta finantzak | Nekazaritza | Eraldatze industriak | Euskal Sagardoa | Barredo, Amaia | Gipuzkoa | EAE | Euskal Herria

## Bi hamarraldi. Milaka aldi.

Hogei urtez, milaka euskaldunen babesari esker, aldian aldiko kazetaritza independente eta profesionala egin ahal izan dugu. Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik

Iruzkin bat egin

ORDENATU DATA




## INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Gripea: beti garai txarrean datorren bisitaria

KRISTINA MARTIN

---

**Arkaitz Angiozar:** «Oso interes merkantilistak dituzte klub batzuek»

NEREA INTXAUSTI CASTIÑEIRA

## EKONOMIA




### Bruselak Serbian topatu du litioaren altxorra

IÑAUT MATAUKO RADA



## EKONOMIA

## NABARMENDUAK

**Benito Lertxundi:** «Nire ibilbidearen azken zatian doktrinak baztertzera jo dut»

GORKA EROSTARBE LEUNDA



«Jendeak geroko utzi ditu malkoak»

ORSOLA CASAGRANDE



**Juan Carlos Perez eta Jose Garate 'Foisis':** «Anakronikoak ginen»

IÑIGO ASTIZ



Ab asl ab esl

LEIRE

# Harpidetu Berriaren buletinetara

**Mendia**

**Arratsaldekoa**

**Goizekoa**

**Badok**

**Astekaria**

**Kinka**

**Kazetaritza**

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.